

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko uztailaren 13a. VIII. urtea. 2.260. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Beotibarrera begira daude HITZA Pilota Txapelketaren 24 finalistak

Sei mailatako finalak hilaren 16an, larunbatean, jokatuko dira Tolosako Beotibar pilotalekuan; lehen finala, benjaminena, 09:30ean hasiko da

Nagusien mailan Urretabizkaia-Aizpuruk eta Artola-Irustak jokatu dute finala, jubeniletan berriz, Labaka-Unanuak eta Maiza-Oriak ◊2-3



Nagusien mailako finalean Artola-Irusta eta Urretabizkaia-Aizpuru ariko dira elkarren aurka. A. MAZ

Alegiako karmenei gaur emango zaie hasiera Festa Alternatiboekin

Bihar arratsaldeko 19:00etan botako dute txupinazoa udal ordezkariak udaletxeko balkoitik, Txintzarriaren goerarekin batera ◊4

Asteasuko Santamaña auzoan jaiak ostiralean hasiko dira

Lau egun luzatuko diren festak herri afariarekin hasiko dituzte, astelehenean Tranzazuloren jaiatsierekin amaitzeko ◊6

Etorkinek udan ere euskaraz ikasten jarraitzeko aukera dute

Amasa-Villabonako Udalaren eta Banaizbagara elkartearen eskutik astelehenero elkartzten dira Gaztelekuan, 19:45etik aurrera ◊6



HITZAK harpidedunentzat **afari txartelak** ditu

Villabonan uztailaren 14, 15, 16 eta 17an ospatuko den

15. Garagardo Azokarako,

bi pertsonentzako **4 afari** zozketatuko ditugu,

Egun bakoitzerako afari bat,

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



hitza

192 pilotaritatik 24 onenak HITZA Txapelketaren finalean egongo dira

Sei finalak hilaren 16an, larunbatean, jokatuko dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, 09:30etik aurrera

Urtero ikusleen erantzuna bikaina izan ohi da, aurtengoan ere horrela izan dadila

I. Urkizu/A. Imaz/L. Galarraga

VIII. HITZA Pilota Txapelketan 192 pilotarik hartu dute parte. Guztiek larunbat honetako finalak zituzten buruan, baina galbahea 24ek bakarrik gainditu dute. Hauek hilaren 16an, larunbatean, Tolosako Beotibar pilotalekuan elkartuko dira, 09:30ean.

Txapelketa sei mailatan banaturik dago, adinen arabera. Oro har, bikoteak eskualdeko pilotariz osatu dira, baina federatuetan, bertakoak Euskal Herri guztiko pilotariek nahastu dira, maila orekatu bat bilatze aldera.

Orain arteko txapelketaren maila oso ona izan da. Ikusleek ere bikain erantzun dute, pilotalekuei itxura polita emanaz. Jendearen erantzun ona ez da aurtengo kontua bakarrik, Hitza Txapelketak urtero izan baitu harrera ona. Horren adibide, Beotibarren jokatu diren finalak izan dira. Aurtengoan ere horrela izan dadila.

Pilotariek ere gustura jokatzen dute HITZA Txapelketan. Alde batetik, ezohiko bikotearekin jokatzen dutelako, eta bestetik, Beotibarren jokatzea handia delako beraientzat. Tolosako pilotalekuak erakargarritasun handia du pilotariengan: ikusleak oso gertu geratzen direlako, eta pilota jarraitzaileak erruz gerturatzen direlako. Larunbat honetan, 09:30etik aurrera dute denek bertan, hitzordua.

↓ Azken finalerdiak

Jubenilak	
Olano-Barandiaran	17
Maiza-Oria	18
Labaka-Unanua	18
Mendi-Apeztegia	7
Nagusiak	
Urretabizkaia-Aizpuru	22
Etzaniz-Blain	21

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan. Eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, koma, egongela-jangela handia, sukaldea, 2 autorentzako garaiea, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuek deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

LANA

■ **Harakina.** Asteasuko despize almazen batek harakina behar

du. Esperientzia izatea beharrezkoa da. Deitu 943 69 33 22 telefono zenbakira 08:00etatik 12:00etara.

■ **Zaintza eta etxeko lanak.**

Leitzaldeko emakume euskaldun batek haur nahiz helduak zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako lanetarako bere burua eskaintzen du. Interesatuek deitu 948 51 03 48 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

NAGUSIAK



Artola-Irusta

➔ Iñaki Artola aurrelaria alegiarra da eta 17 urte ditu. Etorbizun oso oparua duela dirudi, bere ibilbideari begiratua. Bere ezaugarriak nabarmenena indarra da, eta tantoa bukatzen badaki. Berez, jubeni mailako jokalaria da, baina txapelketa honetan nagusietan ari da, bere indarra dela-eta egokiagoa izan daitekeelako. Nagusien mailan jokatzea oso ondo etorri zaio, bai final laurdenetan, bai finalerdietan, oso partida onak egin baititu. Batez ere, tantoa bukatzen asmatu du aurrean.

Irusta 19 urteko gernikarra da, atzelaria, eta etorkizun nahiko ona ikusten zaio; enpresa bat edo beste berari begira ari dira. Ezker-eskubi pilota oso ongi erabiltzen du, eta behar bada, pilotak frontoian ondo jartzen ikastea falta zaio. Partida ona eginez gero, finala irabazteko bikote favoritoa dela dirudi.



Urretabizkaia-Aizpuru

➔ Urretabizkaia 19 urteko ikaztegiarra da, aurrelaria erabat. Tantoa bukatzen oso ondo daki, baina ez du Artolak duen kolpe hori. Hala ere, oso pilotaria da, tantoa bukatzeko dohaina duten horietakoa.

Aizpuru, berriz, azpeitiarra da, eta 19 urte ditu. Ez du bereziki kolpeagatik arreta ematen pilotari honek, baina partidu batean Aizpuru pilotari galtzea ia ezinezkoa da.

Oso bikote sendoa osatzen dute elkarrekin, izan ere, Aizpuru atzelariak partiduari oso ondo eusten dio, eta Urretabizkaia, aukera duen guztietan, tantoa oso ondo amaitzen du. Beraz, Urretabizkaia-Aizpuru bikoteari finala irabazi egin beharko diete, ezaugarri hauekin ez baitiete lan erraza jarriko aurkariei. Gainera, maila ona erakutsi dute orain arteko partidetan.

JUBENILAK



Labaka-Unanua

➔ Eneko Labakak 17 urte ditu eta Albizturkoa da. Daniel Unanua, berriz, Arizalako (Nafarroa) da eta 18 urte ditu. Oso bikote sendoa osatzen dute. Labaka oso pilotaria da, eta aurrean ondo bukatzen dakiena, bai gantxo, eta baita dejadaz ere. Atzera ere, pilota luze jartzen du. Unanuak, berriz, oso pilota gutxi galtzen ditu eta kolpe ona du. Jubeni mailan frontoia hobekien hartzen dakienetakoa da. Finala irabazteko bikote favoritoa dira.



Maiza-Oria

➔ Imanol Maiza aurrelari andoaindarrak oso ondo bukatzen ditu tantoak, kolpez hain indartsua ez den arren. Oria zaldibiarra Zabalaren ordeztatu zen final laurdenetan. Atzelaria izan arren, ezkerrekin pilota oso ondo erabiltzen du. Beste bikotearekin alderatuta, kolpez ez dira hain indartsuak, baina Labaka-Unanua bikoteak oso ondo jokatu beharko du hauei irabazteko, Maiza-Oria bikoteak oso partidu onak egin baititu txapelketan.



KADETEAK

Garaio-Aburuza

➔ Garaio aurrelaria Lizarrakoa da. 16 urte ditu. Ezker-tiarra, indartsua, pilotari abiadura handia ematen diona, eta tantoa oso ondo bukatzen duena. Atzera ere asko jokatzeko du. Aburuza 15 urteko bidegoiendarra da. Ezker-eskuin ongi jokatzeko du. Etorkizun polita ikusten zaion atzelaria peto-petoa da. Bikote oso ona egiten dute, eta finalik gogorrena hau izan daiteke.

Urdapilleta-Iruretagoiena

➔ Josu Urdapilleta Bidegoianen jaio zen duela 15 urte. Tantoa oso ondo amaitzen duen aurrelaria da. Gaizka Iruretagoiena 16 urteko asteasuarra da. Defentsa ikargarria dauka, eta pilota ondo josten du ezker-eskuin. Faborito argirik gabeko finala da, eta partida kolore gorria duen bezala urdina ere badu. Edozeinek irabaz dezake.



INFANTILAK

Barriola-Mendia

➔ Barriola Leitzakoa eta Mendia Beasaingoa. Oso bikote ona osatzen dute. Barriola ezker-tiarra da, eta bere mailan jokatzeko indar asko du. Mendia atzean nahiko segurua da, baina bere egunak ditu. Bikote oso polita egiten dute, eta infantiletan ibiltzeko maila polita dute. Barriolak azken partidaren erakutsi zuen maila ematen baldin badu, borroka egongo da finalean.

Bakaikua-Erauskin

➔ Bakaikua Iruñekoa da, eta Erauskin eskualdekoa, hain zuzen ere, Berrobikoa. Bikote sendoa osatzen dute. Bakaikua oso ona da, bere mailan onenetakoa. Aurrean tantoa ondo bukatzen du; abila, bolea duena, teknika guztia ondo menderatzen duena... Erauskin mutil handia da, kolpe ona duena, eta aurrelariari ondo laguntzen dio. Faboritoak izan daitezke.




ALEBINAK

Oiarbide-Arandia

➔ Oiarbide eta Arandia alegiarrak dira. Bikote oso polita osatzen dute. Alebin mailan biak ala biak oso ondo ibiltzen dira, euren lekua bikain aurkitu dutelarik. Arandia atzelaria da bikotearen pisua ematen duena, baina Oiarbideren laguntza ezin da albo batera utzi. Bikote polita osatzen dutenez, final interesgarria izango dela ez dago zarrantzarik.

Erasun-Ugartemendia

➔ Erasun Zizurkilgoa da, eta Ugartemendia Asteasuakoa. Aiztondo bailarakoek oso bikote sendoa osatzen dute. Erasun aurrelaria da, eta oso ondo jokatzen du. Ugartemendia atzelaria da eta oso ondo eusten dio pilotari. Final oso gogorra izango da, bi aurrelariak ez baitira bukatzaileak; indarrez jokatzen dute. Atzelariak tantoa bukatzeko dohain onak dituzte.



BENJAMINAK

Iruretagoiena-Agirre

➔ Tolosarrak dira biak, eta oso bikote polita osatzen dute. Iruretagoienak aurrean jokatzen du, nahiz eta maila haue-tan, ez den berezketarik egiten. Koadro motxetan jokatzen dute, eta biek dakite tantoa amaitzen. Teknika ondo menderatzen dute, eta final bizi-bizia ikusteko aukera egongo da. Larunbateko lehen finala jokatuko dute benjaminen, 09:30ean Beotibarren.

Zubeldia-Olano

➔ Zubeldia eta Olano Altzokoak dira. Benjaminetan oso bikote polita osatzen dute. Biek jokatzen dute ondo, eta aurkariak bezala biek dakite tantoa amaitzen. Txukun ibiltzen dira lauak lan horretan. Pilota goxoe-kin jokatzen dutenez, tantoa ez galtzea izango dute helburu, eta aukera dutenean amaitzen saiatuko dira. Partida polita jokatuko dute.



↓ **Egitaraua**

UZTAILAK 13, GAUR

FESTA ALTERNATIBOAK

- **18:00.** Santosen omenezko futbol txapelketako finala eskolako patioan.
- **19:30.** Sagardo probaketa.
- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **22:30.** Itzel taldearekin erromeria.

UZTAILAK 14, BIHAR

- **09:00.** Jubilatuek antolatutako mendi martxa.
- **10:00-14:00.** Haur parkea eskolako atarian.
- **13:00.** Apar festa.
- **11:00.** Jubilatuentzat hamai-ketakoa.
- **14:00.** Umeen herri bazkaria plazan.
- **16:00.** Umeentzat arrantzaleen jokoak Kulki taldearen eskutik, eskolako atarian.
- **18:30.** Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa udaletxeko arkupetan.
- **18:30.** Ordiziako erraldoi eta buruhandiek, herriko txistulari eta trikitalariek eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira egingo dute Larraitz auzotik plazaraino.
- **19:00.** Txupinazoa, udal ordezkarien eskutik eta Txintxarriaren igoera, jaien hasiera iragartzeko.
- **19:30.** Olatz Zubeldia eta Ane Balerdiren eskutik trikitia plazan.
- **21:00.** Zahagi ardoa herriko plazan.
- **22:30.** Bertsolariak kultur etxean: Andoni Egaña, Unai Iturrriaga, Aitor Sarriegi, Iker Zube-

dia eta Mikel Artola. Gai-jartzaila: Felix Irazustabarrena.

- **23:30.** Kresala taldearekin dantzaldia plazan.

FESTA ALTERNATIBOAK

- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **22:30.** Joseba Irazoki eta Pe-ttiren kontzertua.

UZTAILAK 15, ETZI

- **09:00.** Herriko txistularien eta trikitalarien diana.
 - **09:00.** 3X3 saskibalo txapelketa eskolako patioan. Infantil eta alebin mailetan lehiatuko dira.
 - **09:30.** Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.
 - **11:00.** Iraunkorrak txaranga kalez kale ibiliko da.
 - **16:00.** Umeen Santos Torneoko futbol txapelketa finala.
 - **17:00.** Haur jaialdia eskolako atarian. Merienda eta jokoak.
 - **19:00.** Trapu Zaharrak taldearen *Kanping renove* kale antzerkia plazan.
 - **20:00.** Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua elizan.
 - **21:00.** Zahagi ardo bateratua. Ardoa Gaztetxeak eta postrea udalak.
 - **22:00.** Alegiako I. Pilota Txapelketako finalak. Afizionatu eta jubencil mailak.
 - **00:00.** 25th Coming Fire eta Zea Mays taldeen kontzertuak.
- FESTA ALTERNATIBOAK**
- **14:30.** Herri bazkaria. Ondoren, Mulamborekin poteoa.
 - **21:00.** Zahagi ardo bateratua.
 - **02:00.** Gau elektronikoa.

UZTAILAK 16, LARUNBATA

- **09:00.** Arrantza lehiaketa Ori ibaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat.
- **09:00.** Herriko txistularien eta trikitalarien diana.



Aurten ere apar festa izango dute haurrek. E.MAIZ

- **09:30.** Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana.
- **11:30.** Loatz musika eskolako emanaldia plazan.
- **12:00.** Sagardo dastatzea, sardina eta txorizo erreekin.
- **12:00.** Asier Unsain eta Irma Karrerarekin trikiti doinuak plazan.

- **17:30.** Umeentzako jolasak plazan.
- **19:00.** Herritarren arteko toka txapelketa plazan (helduentzako).
- **21:00.** Herri afaria plazan (sagardotegiko menua).

- **23:30.** Gosereren kontzertua plazan.
- **01:00.** DJ Imanol.

FESTA ALTERNATIBOAK

- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **23:00.** Rock'n'Roll gaua: Sumision City Blues eta Muturbeltz.

UZTAILAK 17, IGANDEA

- **09:00.** Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana.
- **09:30.** Kalejira berezia, lehen-goko eta oraingo herriko txistulariek.
- **12:30.** Alegiako Sutarrri dantza taldearen emanaldia plazan.
- **18:30.** Herri kirolak Larraitz auzoko plazan: VI. Txintxarri Saria. Izeta II.a, Izeta III.a eta Izeta IV.a alde batetik, eta Aimar Irigoien, Unai Bertiz eta Urtzi Telleria, bestetik. Korrikalariak: Juan Mari Garin eta Aimar Agirresarobe. Harriak: 125 kiloko zilindro kopa, 125 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro-zaharra, 100 kiloko bola. Ondoren, Gipuzkoako ingude-altxatze txapelketa.
- **19:00.** Kale animazioa eta kontzertua Mc Jeara's Band-en eskutik.
- **23:00-02:00.** Dantzaldia Imuntzo eta Beloki taldearekin.
- **00:00.** Txintxarriaren erreketata.

FESTA ALTERNATIBOAK

- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **22:00.** Herriko bertsolariak. Segidan, Desordutan eta Keiran taldeen kontzertua.

Txintxarria entzuteko prest

Gaur hasiko dira Festa Alternatiboak, txupinazoa hala eta guztiz ere bihar botako dute

Imanol Garcia Alegia

Jai giroa nagusituko da egunotan Alegiako Karmengo festetan. Txupinazoa bihar izango bada ere, gaurkorako Festa Alternati-

bokoek prestatu dituzte ekitaldiak. Futbola, sagardoa, zahagi ardoa eta kontzertua izango dira. Bihar ere, txupinazoa bota aurretik izango dira ekitaldiak, batez ere jubilatuei eta haurrei zuzenduta. Txupinazoa bota eta Txintxarria igo, udal berriak egingo du.

Musika talde erakargarriak izango dira Alegiako festetan, gustu guztietarako: Zea Mays, Gose, Itzel, Kresala, Joseba Irazoki, Petti, 25th Coming Fire, Imun-

tzo eta Beloki, Desordutan, Keiran, Sumision City Blues, Muturbeltz...

Aurtengo festek ere badute bezelako bat. Pilota partidak izango dira, ohi bezala, baina aurtengoan txapelketa baten barruan lehiatuko dira pilotariak. Alegiako I. Pilota Txapelketa antolatuko dute, eta jubencil eta nagusien mailan jokatuko dute.

Herriko kultur taldeek ere beraien saioa egingo dute: Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek, Sutarrri dantza taldeak eta herriko trikitalari eta txistulariak. Bertso saiorik ere ez da faltako, eta herri kiroletan ohikoa bihurtzen ari den Txintxarri sariak seigarren urtea izango du aurten. Egitarau oparora, beraz, igandera arte gozatzeko.

LEIHO ISOLATZAILEAK

- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

Leiho PRO

Jai zoriontsuak pasa!

943 69 84 39

Galdaragintza

BURNI, S.L. Ondo pasa jaietan!

Errotalde, 24 • Tel.: 943 653112 • Faxa: 943 655532

ALEGIA

Larraitz ileapaindegia ren partez: **Jai zoriontsuak!**

Larraitz auzoa, 2 behea • ALEGIA • Tel.: 943 65 55 33

Eskerrak eman nahi dizkizuet urte hauetako babesagatik

ALEGIA 943 653 097

ISKINA edaritegia San Juan kalea 59

ETXEBERRIA edaritegia San Juan kalea 51

TXINDOKI AUTOBUSAK

FESTA ONAK PASA HERRIKOAK ETA KANPOKOAK!

ALEGIA Tel.: 943 65 30 12

FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK
Larrea Poligonoa 34-1

VILLABONAKO
BEILATOKI ETA SULABE
BERRIA

Uztailak 16 eta 17an
ate-irekiko jardunaldiak
Gerturatu...



www.funerariavascongada.com

24 H..

943 694 873



Etorkinei zuzendutako euskarazko klaseek ez dute atsedetik udan

Doakoa da eta ez da izenik eman behar; asteleheneko elkartzen dira, eta udan ekitaldi bereziak egingo dituzte

E. Maiz Amasa-Villabona

Lau hilabete baino gehiago da Amasa-Villabonako Udalak hizarmena izenpetu zuela Banaizbagara elkartearekin. Zehazki etorkinak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko proiektua da. Proiektu hau, Gipuzkoako beste zenbait udalerritan garatzen ari da duela urte batzuetatik, eta Villabonan ere, dagoeneko oso arrakastatsua izaten ari da. Etorkin taldea asteleheneko-astelehenero biltzen da Gaztelekuan, 19:45ean.

Klase guztiak doakoak dira. Ez da ezer jakin behar aurretik, eta ez da izena eman behar klase hauetara joateko. Nahikoa da aipatutako orduan eta tokian agertzea edozein astelehenetan.

Klaseek ez dute etenik izango udan, eta ekintza bereziak egon-

go dira. Aste honetan, palako klase bat izan zuten Beharzana pilotalekuan. Hilaren 18an, astelehenean, ohiko orduan, kantu saio bat izango da Gaztelekuan bertan. Ana Elorza kantu irakasleak parte hartuko du, eta helburua euskarara kantuaren bidez hurbiltzea izango da.

Era berean, ongi etorriak izango dira abestera eta beste hainbat kultura ezagutzera hurbildu nahi duten euskaldun guztiak ere. Bestalde, abuztuaren 7an, igandean, Oriora joango dira Gipuzkoako etorkinen euskara taldeetako kide guztiak, eta elkarrekin bertan bazkalduko dute.

Ekintza hauei buruzko informazioa nahi duena, Gaztelekuko asteleheneroko ohiko hitzordura joan daiteke, edo Villabonako Euskara Zerbitzurako 943 69 35 01 telefono zenbakira edo Banaizbagara elkarteak 645 73 38 18 telefono zenbakira deituz jarri daiteke harremanetan.

Amasa-Villabonako Udalak, euskaraz ez dakien lagun etorkinen bat duen herritar guztiei, talde hauetan parte hartzea animatzeko deia egiten die.

Tranpazulo Santamañako jaien berri ematera etorriko da, ostiralean

Lau egun izango dituzte festarako; ostiralean 20:00etan hasiko dituzte jaiak eta herri afaria izango dute

Eneritz Maiz Asteasu

Ostiralean iritsiko da Tranpazulo Santamañara. 20:00etan egingo duen igoerarekin jaiak hasiera emango die. Berarekin batera etorriko da txupinazoa ere. Behin hasiera emanda, astelehena bitartean jai giroa izango da Asteasuko Santamaña auzoan.

Herri afaria izango dute ostiralean, eta urterto moduan trikiti doinurik ez da faltako. Kasu honetan, Laja trikitilariak Narbaiza izango du lagun. Larunbata egun lasaia izango dute. Mus Txapelketaz gain, Kupela taldea izango da. Igandea eta astelehena berriz, bete-beteak izango dituzte. Igandean, txirrindu zaleekin hasiko dute eguna. Andazarrateko XXVII. Igoera izango da federatu gabeko txirrindularientzat. Herri



Herriko gazteen arteko herri kirolak izango dira, astelehenean. E. MAIZ

kiroletan, aizkolariak eta harri-jasotzaileak izango dira. Arratsaldean, Artzain Txakurren Lehiaketa egingo dute. Lau txakur izango dira parte hartuko dutenak, eta gauean, Laja eta Landakandaren txanda izango da.

Astelehenean berriz, bertako

gazteen arteko herri kirolak izango dira. Jarraian, Mañukorta eta Peñagarikano bertsolarien txanda izango da. Izer, Narbaiza eta Lurtxudio arduratuko dira egunari musika jartzeaz, eta afal aurretik Tranpazulok agur esango die aurtengo jaiak.

→ Laburrak

Minbiziaren Aurkako elkartearen (eskerrak)

ZIZURKIL › Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak, Zizurkilgo herriari eta elkarteak boluntarioei, eskerrak eman nahi dizkie, ekainaren 18an egin zen diru bilketan izan zen parte hartzeagatik. Lortutako dirua 839,99 euro izan zen. Diru hau minbizia duten pertsona eta familiakoei zuzenduriko arreta esku hartzea, prebentzio arloko esku hartzea eta ikerkuntzarako erabiliko dela adierazi du Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak.

«Mari Jose Aiestaran laguntzeagatik eskerrak»

IBARRA › Mari Jose Aiestaranen alaba eta mutil lagunak, hiruren artean eskerrak eman nahi dizkie Ibarra eta Tolosako herritarrei, eta Ibarra merkatariei, horrelako une gogor batean eskainitako babesa eta elkartasunagatik.



↓ Santamañako Jaiak 2011, Asteasu

UZTAILAK 15, OSTIRALA

- **20:00.** Aurtengo festei hasiera emango diete: Tranpazulon igoerarekin eta txupinazoa botatuz.
- **21:00.** Herri Afaria egingo dute.
- **Ondoren.** Laja eta Narbaiza trikitilariekin.
- **Goizaldera.** Txokolatada egingo dute.

UZTAILAK 16, LARUNBATA

- **16:00.** Santamañako XVII. Mus Txapelketa izango da.
- **23:00.** Kupela taldea izango da.

UZTAILAK 17, IGANDEA

- **10:00.** Andazarrateko XXVII. Igoera (Federatugabeko txirrindularientzat).
- **11:30.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Herri kirolak: Aizkolariak, Olasagasti eta Azurmendidi. Harri-jasotzaileak: Perurena aita-semeak. Giro alaitzeko, Laja eta Landakanda trikitilariak.
- **18:00.** Artzain Txakurren Txapelketa: Javier Zubiaurre Txiki txakurrekin, Juan Jose Arrizabalaga Azkartxakurrekin; Antonio Alustiza Ttikitxakurrekin eta Jon Urien Bat txakurrekin izango dira.

- **Gauean.** Laja eta Landakanda trikitilariak izango dira.

UZTAILAK 18, ASTELEHENA

- **11:00.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketakoak.
- **13:00.** Herri kirolak, bertako gazteen artean egindakoak.
- **Ondoren.** Mañukorta eta Peñagarikano bertsolariak izango dira. Izer, Narbaiza eta Lurtxudio trikitilariak ere giroa alaituko dute.
- **17:30.** Kalejira.
- **Afaldu aurretik.** Tranpazuloren jaitziera egingo dute.
- **Gauean.** Izer, Narbaiza eta Lurtxudio trikitilariak ariko dira.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



M. UGARTEMENDIA

Oier Eizmendi ◉ Leitzako alkatea

Azken asteotan alkatetzako lanetara egokitzen ari da Oier Eizmendi, leitzarra; berria izan arren argi du zer nahi duen bere herriarentzat, gizarte gaiek bereziki kezkatzen dute eta gai hauen inguruan lan berezia egiteko asmoa du.

«Erabakiak hartuko dituzten herritar aktiboak nahi ditugu»

Maier Ugartemendia Leitza

Gaztea izan arren, burua bere lekuan du Oier Eizmendik (Leitza, 1989) eta badaki bere herriarentzat zer nahi duen. Horregatik eta herriak emandako babesagatik, Leitzako alkatea izango da datozen lau urte hauetan. Bilduk Leitzan hamaika zinegotzitatik berderatzi lortu zituen.

Herriak emandako babesasmo asko «eskertzen» du, eta «horri eustea» eta «herriari hutsik ez egitea» espero du. Taldean harreman ona dute, eta horrek herriarentzat «gauza onak egiten» lagunduko duela uste du.

Hain gaztea izanda nola erabaki zenuen alkatetzarako aurkeztea?

Espainiako Gobernuak eman duen politika honekin, Euskal Herri mailan jende pila bat geratu da, ustezko hauteskunde demokratiko batzuetan parte ezin hartuz. Horren aurrean, Leitzan kalkulatu ari ginen bere garaian, eta ehunetik gora dira *beltzak* deitzen direnak; esan dezagun, aurretik ilegalizatutako zerrendetan agertu direnak. 3.000 pertsona bizi diren, Leitzaz bezalako herri txiki batean, politika munduan sartzeko prest egongo

liratekeen, baina debeku bat dautkatelako ezin dutenak, ehun pertsonatik gora izateak ahultzeaz, eta gehiago eraiki beharrean, etxe hutsak identifikatzen jarraitzeko asmoa dugu, esate baterako. Amazabal auzoko urbanizazioa berritzeko proiektua ere martxan dago, eta horrek ere aurrera jarraituko dugu. Ezkerreko alderdi bat gara. Pribatizazioa moztu, eta sozializazioa eta jendearen parte hartzea bultzatu nahi ditugu.

Zein izango dira hurrengo lau urteetarako zuen proiektu nagusiak?
Herriaren parte hartzea bultzatu nahi dugu. Herritar aktiboak nahi ditugu, gurekin erabakiak hartzeko orduan parte hartuko dutenak. Erabakietan herritarrek parte hartzea, herriak eskatzen dizuna egingo duzula bermatzen dizu. Denon artean hobeki egingo dugulakoan...

Parte hartze hori nola eramango duzue aurrera?

Oraindik asko hitz egin behar da gai honen inguruan. Aurrera eramateko formatu desberdinak daude. Aukera bat herri batzarrak antolatzea da, herritar guztiei bilera dei bat eginda. Baina, sektoreka lantzeko asmoa ere ba-

dugu. Abeltzainen inguruko gai bat bada, abeltzaintza ez dakien norbaitekin bildu beharrean, abeltzainekin bilduko gara. Hau da, arlo baten inguruko gaia denean sektore horretako jendearekin bilduko gara. Hasiara batean bilerekin funtzionatuko dugu.

«Datozen lau urteetan udalaren zorra jaisten jarraitzea da gure asmoa»

«Turismoak herriari onura dezente ekartzen dizkiola uste dugu»

Eta azpiegiturei dagokienez, zer egingo duzue?

Bi inbertsio oso handiak dauzka gure aurretik. Alde batetik, Edateko Uren Tratamendu Zentroa. Europako Lege batek dio ura biltzekin bildu aurretik ere tratatua egon behar duela. Honakoa, tratamendu hori emateko eraikin bat da, garbitzeko sistemarekin. Leitzaz herri txiki bat da, eta horrek 750.000 euroko inbertsioa suposatzen du; eta, diru laguntza

handia izan arren, inbertsio dezentea da. Bestetik, Amazabal auzoko urbanizazio guztia berria egingo da. Horrek ere 850.000 euroko inbertsio indartsua eskatzen du. Laster hilerriko lanak ere hasiko dira... Hauek aurreko legegaldetik lotuta dauden kontuak dira. Eta, guk orain lotu gabe dauden kontuen artean, aurreko udalak Beheko Landa deitzen zaion inguruan Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko proposamena egin zuen. Guk hori aztertuko dugu, eta herriak behar badu egingo dugu. Gero pixkanaka jango gara gauzak egiten. Hor bada beste kontu bat, udalak lehen zor handia zuen; azkeneko legegaldian %27 jaitsi zuten, baina, hala ere zorra badago, eta horrek nahikoa mugatzen gaitu. Horren aurrean, gure asmoa zor hori ez igozea eta jaisten saiatzea da. Jaitsiko dugunik ezin da bermatu, eta herriarentzat beharrezkoa den inbertsio bat egin behar bada egingo dugu. Baina, hasiera batean, asmoa zorra txikitzen jarraitzea da.

Lehen zorra handi zela esan duzu, orain zer moduzko egoeran dago udala?

Azkeneko lau urteetan, aurreko udal taldeak izugarriko lanketa egin zuen. Aurreko udal taldea udalean sartu zenean badakit udal txarearen egoera ekonomikoa oso txarra zela. Gaur egun, jada ez dago horrelako alarmismorik. Aurreko udal taldeak lau urteetan aurrezteko politika hartu zuen. Guk udala hartu dugun honetan egoera ekonomikoa oso desberdina da, eta alde horretatik udala orain ez nuke esango gaizki dagoenik; gu orain dela lau urte zendea baino askoz hobeto gaude.

Udal antolamendua martxan jarri al duzue?

Aurreneko plenoa karguak hartzeko izan zen, eta bigarren plenoa ekaineko azken ostiralean egin zen. Zazpi batzorde osatu ziren. Batzorde bakoitzean bost zinegotzi egongo dira, horietatik hiru Bildukoak, eta beste bat UPNkoa eta azkena DNEkoa. Batzordeetako lehendakariak Bilduk hartu ditu, baina UPN eta DNEkoak ere batzorde guztietan egongo dira. Aurreko legegaldian zortzi batzorde zeuden, eta beraien hitz eginda handiegia geratzen zela erabaki genuen, eta zazpi batzorde osatu genituen. Batzuek jada lanean ari dira, eta pixkana bere martxa hartuko du bakoitzak, autonomoak izango dira.

Turismoa bultzatzen jarraitzeko asmo al duzue?

Turismoak herriari onura dezente ekartzen diola uste dugu. Plazaola ikusi besterik ez dago; astebururo herria beteta egoten da, jende pilo bat etortzen da bizikletekin eta. Horrek herriari bizia ematen dio, eta herriari dirua ekartzen dio, eta hori gure ustez bultzatu beharreko zerbitu da.

◉ leitzaldea@hitza.info



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



BISITARIEI INFORMAZIOA EMATEKO GUNEA

laz egin bezala Trianguloan bisitarietara Tolosaldeko turismo eskaintzari buruzko informazioa emateko gunea jarri dute. Udako Turismo Bulegoa uda guztian zehar egongo da bertan, eta egunero egongo da zabalik; orain 10:00etatik 14:00etara,

eta 15:30etik 19:00etara, eta udako goi-denboraldian 19:30ak arte. Aipatu bezala, pasa den urtean erabaki zuten informazio gunea plazan jarzea, Santa Maria plazan dagoena nahiko ezkutu geratzen delako. R.CALVO

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



508 BERRIA

*Prestutasuna eta teknologia
Zirrara eta exigentzia
Sorkuntza Berriko berrikuntza*



*Ez bilatu gehiago,
Tolosa Motorren zure amesteko autoa daukagu,
508 Peugeot berria.*

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508



Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** San Bartolome jaietarako danborradan parte hartuko duten haur eta gazteen entsegu gaur, 20:00etan Bela-bieta kiroldegian.
- **Berastegi.** Salontzo jaietako abuztuaren 5eko afarirako txartelak erosi daitezke jada, Urepele elkartean, Zelai tabernan eta Basurde elkartean. Helduek 17 euro ordaindu beharko dute, eta 12 urtetik beherakoek 9 euro.

tatu daiteke Ekomuseoan, iraila arte.

- **Tolosa.** Binefarreko titiriteroen erakusketa Topic Txotxongi-Loen Nazioarteko Zentroan urriaren 2a bitarte. Irailak 30 bitarte udako ordutegian ikusi ahal izango da erakusketa, hau da, lanegunetan 11:00etatik 14:00etara, 16:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 11:00etan 14:00etara, eta 16:00etatik 21:00etara.

ZINEMA

- **Leitza.** Atekabeltz gaztetxeak antolatutako udako zinemaldiaren barruan, Quentin Tarantinoren *Reservoir Dogs* filma eskainiko dute gaur, 22:30ean gaztetxean bertan.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

ERAKUSKETAK

- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketa bisita-

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

15. GARAGARDO AZOKA
UZTAILAREN 14tik - 17ra
Ordutegia: 10.00etatik 1.00ora
VILLABONA
Herriko Plaza, 14. 943 65 56 95

Errausketa zerbitzu berria martxan!
Errausketa labe proporekin